

Kartzelako angelu itsuak

Hemen naiz, ez gelditzeko baina: Markel Ormazabal. Txalaparta, 2014



Itsaso Zubiria
Etxeberria

2426. alea
2014-08-03

Tweet 0

Follow @itsasozubiria

Gomendatu 0

5 0



Itzalpean, "bergizarteratze prozesu" izendatzen dutenaren muin-muinean bere bizitzaren zati bat pasa duenaren larruan jarriko zaitu Markel Ormazabalek, idatzi berri *Hemen naiz, ez gelditzeko baina* kartzela-kronikan. Kartografo paperean jarri eta lau hormen artera bidaia egingo duzu, pareta gurutzatu bezain laster izena zenbakiz trukatu dioten gatibuarekin kartzelaren angelu itsuak ezagutzuz.

Lisabö taldearen kantuarekin eman dio sarrera egileak, musikarekin dantzan irakurri beharrekoa den testuari, eta liburu osoan zehar egingo dizkizu kantuen aipamenak, gaiarekin jolasean. Bizipen pertsonaletik abiatuta, gure herri honetako seme-alaba gehiegik ezagutzen duten errealitatea dizu islatuko: barrote eta kartzeleroen artetik segundo gutxiz bada ere ihes egiteko nahia, pertsona desintegratzeko instituzio horretatik ateratzeko gogoia.

Egileak ezagutaraziko dizkizu leihoari so pasa daitezkeen orduen gordina, lau paretaren artean egotearen gogorra, burdinazko hesi igaroezinez inguratuta eta beti buruan kanpokoekin egon nahi eta ezinaren samina... Bainaaldi berean erakutsiko dizu txikitik, egunerokoan horren guztiaren kontra egiteak dakarren duintasuna eta norbanakoaren zein kolektiboaren izena eta izana apurka mantentzeak pizten duen argia.